

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko maiatzaren 27an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**3.- 20.3 EXEKUZINO UNIDADETIK INDUSTRIALDE BARRIKO SARRERAREN I. FASEA, BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

20.3 exekuzino unidadetik industrialde barrira sarrerea egiteko obra kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2009ko martiaren 18an Alkatetzak, dekretuz, 20.3 exekuzino unidadetik industrialde barrira sarrerea egiteko proiektuaren 1. fasea eta administrazio baldintza agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazio-prozesura bederatzi parte-hartzaile aurkeztu dira:

- Zabaldu Construcciones
- U.T.E. Eder Construcciones - Lurlan 2001 S.L.
- Intxausti Construcciones
- J.A.Olabarri Construcciones S.L.
- Excavaciones Cantábricas, S.A.
- U.T.E.Asfaltos Uribe, S.A.– Construcciones Fhimasa, S.A.
- Codesport, S.A.
- Leandro Gómez, S.L.
- Excavaciones Vda. de Sainz, S.A.

**Argudioak**

Bakarra: 2009ko maiatzaren 19an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakotzak lortutako puntuazioa:

Eskaintzak	Bakotxaren prezioak eurotan, BEZ kanpo (aurrekontua: 632.395,13)	Prezioa (eskaintzen batez bestekoa: 561.119,60) 0-60	Hobekuntzak 0-20	Obrea egiteko epea (5 hilebete) 0-20	Guztira
Zabaldu Construcciones	532.183	32,6	4	4 hilabete 10	<b>46,6</b>
U.T.E. Eder Construcciones - Lurlan 2001 S.L.	505.780,59	7,7	20	4 hilabete 10	<b>37,7</b>
Intxausti Construcciones	551.922,73	51,3	6	106 astegun / 4,8 hilabete 2	<b>59,3</b>
J.A.Olabarri Construcciones S.L.	626.133,78	5,3	2	5 hilabete 0	<b>7,3</b>
Excavaciones Cantábricas, S.A.	582.210,52	42,2	2	4,5 hilabete 5	<b>49,2</b>
U.T.E.Asfaltos Uribe, S.A.– Construcciones Fhimasa, S.A.	562.831,67	58,6	12	4 hilabete 10	<b>80,6</b>
Codesport, S.A.	569.136,75	53,3	2	4,5 hilabete 5	<b>60,3</b>
Leandro Gómez, S.L.	539.877,40	39,9	4	4,25 hilabete 7,5	<b>51,4</b>
Excavaciones Vda. De Sainz, S.A.	580.000	44,1	18	3 hilabete 20	<b>82,1</b>

## Erabagia

Goian azaldutako guztia kontutan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

**LEHENENGOA:** 20.3 exekuzino unidadetik industrialde barrira sarrerea egiteko obra kontratua behin-behinekoz Excavaciones Vda. de Sainz, SA enpreseari esleitzea, 580.000 euroan (BEZ barik).

**BIGARRENA:** Excavaciones Vda. de Sainz, SAri jakinarazotea 5 eguneko epean, behin-behineko esleipenaren iragarkia kontratugilearen profileen argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea

jarri beharko dauela, eta holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko ekainaren 1ean.

ONETSIA  
ALKATEA